

94-KO "MÜSIKAREN EGÜNA"

-PRENTSA AGERIA-

URDIÑARBE

Musikaren Eguna



ORDIARP
Journée de la musique

Bil Xokoa



"Junuenia" - 64130 Urdiñarbe/Ordarp



59 28 00 50

MÜSIKAREN EGÜNA 94

NON : URDIÑARBEN (XIBEROAN).

NOIZ : MAIATZAREN 15ean, IGANTEAREKIN.

ANTOLAKETA : BIL XOKOA alkartea-Junuenia-64130 URDIÑARBE.

XEHETARZÜNAK : Telefona : 59281410-59281757-59283133-59280066,
Fax : 59282885.

1-HELBURUAK

94 urteko, Bil Xokoaren nahikünte da :

- adin orotako jenteen besta baten egitea* (animazione bereziak haurren eta adinetako jenteen)
- kültür harrotze eta ekonomia lotzea* (leküko laborantxako mozkinen süstatzez)
- ohizko Xiberotar kantorearen agertzea, kültür gütütüer zabaltzea eta oraiko müsika molde berrien ezagützea.*

1.1 "Oroer zabalik den besta bat"

Usatü bezala, sartzea kitorik dateke.

Antolaketa :

- arrabotüan, ikusgarri nausia
- herriko ostatüan, ohizko kantarien behazaleak
- üngürüan, erakusketa tokiak, haurrentako animazione elibat eta ikusgarri bat zaharragoentako.

Lekü banatze honek, agerraraz dezake, Urdiñarbeko karrikaren lekü amiagarria. Haur eta adinetako jenteak huilanxka dirate ahalaz.

Haur gazteen, jokü toki bat antolaturik date. Üngürüne hortan lo egiteko xoko bat badate eta arrestiri askaria oroer eskentürük date.

Zaharragoentako, ikusgarri berezi bat antolatürük date, hirugarren adinetako taldeen lagüngoarekin. Heltzeko, errexteko bideak plantatürük dirateke eta taldeko zonbait, haietaz ardüratüko da.

1.2 Kültür itxüra

Bil Xokoaren xedea da, Müsikaren Egünakari, ikusgarri eta erakusketa botitzea, ohizko eta oraiko müsika aldika emaittea, besta hau ediren-güne bilaka dadin, harremanak sort ditean publiko eta espresabide, sorterro desbardinetao artisten artean.

Ezi, herriko ostatüan, ezagütürük diren (edo ez) kantariak biribilkatüko dira, giro goxoan, beren ogüz emanez, gure ondarrearen kantore ohartgarrienak. 1994-ko urtean, beste ohizko kantu kente bat nahi

günüke sar-arazi : *Korzikako polifoniko kantua*, Xiberotar kantua bezala mentetan zehar, bizirik iraün düana.

94-ko Müsikaren Egüean, *jotak* ere entzünen düttüğü. Hor izanen dira NAFARROA-ko joteroak, bai eta ere ARAGON-eko bat.

BRETAİNIA-ko ohizko soñüegileak, BIARNO-ko talde bat eta EUSKAL HERRI-ko talde desberdinak agertüko dira.

URDIÑARBE-n lehen aldikotz, "*Troubadours*" talde bat entzünen düğü, Erdi Aroko sonuak oritarazi deiküena.

Beste urtez bezala, *rock* taldeak hor dirateke arrabotüko tauladan ; famatürik diren artisten ondoan, agertüko dira ezezagüinak diren gazte elibat.

Azkenik, erakusketa bat ba date.

1.3 Güneko mozkinen süstatzea

Kültür ezbardintarzünak, berezitarzün eta fama gero ta handiagoa besta honi ekartzen deio, Xiberotik kanpo ere. Beraz, idüritü zaikü egokia zela besta honez baliatzea, güne mozkinen ezagütarazteko lotüz hola, gure kültür nortarzüna eta ekonomia.

Leküko laborantxako ardüradün elibat ikusi eta, etxalteetako mozkinenez eginik den bazkari bat proposatürik izanen da.

2-EGITARAUA

10 1/2etan : KARRIKA ÜNGÜRÜA
Urdiñarbeko dantzariak-Txanbelariak-Gaiteroak-Trikitilariak.

13 tan : BAZKARIA
Leküko laborantxako mozkinenez eginik.
Izenak eman maiatzaren 8-ko deitzez 59283133.

15 1/2etan xüxen : HIRU IKUSGARRI
Ostatüan : Xiberoko kantariak ; arrabotüan : ikusgarri nausia eta jei berezi bat "xaharragoentako".
L'ALBINU (KORZIKA)
BRETAİNIA-ko ohizko soñüegileak
TROUBADOURS D'AQUITAINE (Erdi Aroko soinü)
L'AGULHADA (BIARNOA)
J.-M. BEDAXAGAR eta J.-Y. CONSTANTIN, Xiberoko Kantariak
JOJO eta RAMUNTXO, beren taldearekin
CHAUVIN eta LAZKARAI, beren taldearekin
NAFARROA-ko eta ARAGON-eko JOTEROAK

21 etan : AIHARIA eta ROCK GAIALDIA
HARDSENIC
TXAKUN
MISTER SAGUAK
MAKILA PAF

Egün orotan : Erakusketak-Haurrentzat : Animazio eta Pausagüne

-SARTZEA DOHAINIK-

3-BIL-XOKOA alkarte

3.1 Bil Xokoaren agertzea

Bil Xokoa 1901 legeko alkarte bat da, Urdiñarben kokatürik (Xiberoan).

Beren herriari animatze ekarri nahi züen gazte elibatek sortü züen alkarte hau. Hatsarrean, kide zonbait baizik bazen, haboroxeak besta batzordekoak, egün 80 bat kide ba dütü adin orotakoak : laborari, ofiziale eta langile.

3.2 Alkartearen helbürüak

-Herriarren artean talde dinamika baten sortzea

-Zer nahi gisako ekintzaren antolatzea herriaren animatzeko urtean zehar eta ez herriko bestetan baizik

-Bil güne baten sortzea, alkarren arteko harremanen azkartzeko, gizarte eta belaunaldi mailan.

3.3 Alkartearen ekintzak

Alkartearen lehen ürratsa güne baten atzamaitea izan zen, kide desbardin lan toki bena ere bai, lekü goxo bat algarretaratzeko.

Bil Xokoak parte hartü dü Mauleko Ihauterietan ; hor, herriko haurrek erakusten züen alkarteak egin lana (orga baten plantatzea, apaintzea etxeko eta erakasleekin batean).

Urte Orotan, Bil Xokoak beste ekintza elibat dütü, kirol eta kültür mailakoak :

-Mus txapelketa bat negüan

-Pelota txapelketa bat üdan

-Xüberotar dantza jauzi eskola baten joanaraztea,urte orotan lan egiten düana.

-Maskaraden pikoan ezartea, 93-ko Ihauteri denboran herriz-herri kurritü dena, Bil Xokoa zelarik ekintza honen juridiko bermüa.

- "Müsikaren Egüna"-ren sortzea 1990 urtean...

4-ESKERRAK

BIL-XOKOA-k nahi dütü eskertü :

-sonüegile, kantari eta erakusle güziak, kitorik honara jitea gaitik

-leküko lantegi eta ofizialeak, beren diharü lagüngoarentzat.